

Klima- aldaketaren oinarrizko lexikoa



UZElren lankidetzarekin



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

berotegi-efektu

Atmosfera berotzea dakarren fenomeno naturala, atmosferako zenbait gasek (bereziki, ur-lurrinak eta karbono dioxidoak) Lurrak igortzen duen erradiazio infragorriaren parte bat xurgatzen dutenean gertatzen dena. Giza jardueren ondorioz neurritz kanpokoak bada, berotze globala gertatzen da.

berotze global

Batez besteko tenperatura globalaren pixkanakako igoera, nagusiki berotegi-efektua areagotzearen ondorioz gertatzen dena.

deskarbonizazio

Erregai fosilekiko dependentzia eta berotegi-efektuko gasen isuriak pixkanaka murriztea.

energia bigun

ekoizten edo erabiltzen denean hondakinik sortzen ez duen energia-mota, ingurumen-inpaktu txikia edo ertaina izan ohi duena eta kutsadura kimikorik edo akustikorik sortzen ez duena. Adibidez, eguzki-energia, haize-energia edo energia geotermikoa.

erradiazio bidezko behartze

Planetaren erradiazio-balantzean gertatutako alterazioa, klima-sistemaren kanpo- edo barne-aldaketa baten ondorioz sortua (aldaketa naturala edo antropogenoa izan daiteke).

Europako Itun Berdea

Europako Batzordean onetsitako neurrien multzoa, Europar Batasuneko ekonomia jasangarria izatea helburu duena.

garapen jasangarrirako helburu; GJH

Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendak finkatutako hamazazpi helburuetako bakoitza. Planeta babestea eta pertsona guztiek bakeaz eta oparotasunaz gozatzea dute xede hamazazpi garapen jasangarrirako helburuek.

itsas mailaren igoera

Batez besteko itsas mailak gora egitea berotze globalaren ondorioz. Izotz kontinentala urtzea eta itsaso edo ozeanoen hedapen termikoa eragiten ditu berotze globalak, eta horien ondorioz egiten du gora batez besteko itsas mailak.

karbono-aztarna

Pertsona, produktu, zerbitzu edo erakunde baten bizi-zikloan zehar isuritako berotegi-efektuko gasen kantitate totala.

karbono-hustuleku

Atmosferara askatzen dituenak baino konposatu karbonodun gehiago xurgatzen eta metatzen dituen edozein gordailu, naturala edo ez-naturala.

karbono-merkatu

Berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen salerosketarako merkatua, atmosferara berotegi-efektuko gasak isurtzen dituzten herrialde, enpresa edo fabrikazio-instalazioek baliatzen dutena.

klima-aldaketa

Toki jakin batean aldi luze batean zehar gertatzen den klima-ezaugarrien aldaketa, bereziki tenperaturaren, prezipitazioen kantitatean edo haizeen maiztasunean edo intentsitatean nabarmentzen dena.

klima-aldaketa arintze

Berotegi-efektuko gasen isuria murriztea edo karbono-hustulekuen xurgatze-ahalmena hobetzea helburu duten giza esku-hartzeen multzoa.

klima-aldaketara egokitze

Sistema naturalak edo gizakiari dagozkionak klima-aldaketaren ondorio saihetsezinetara moldatzea.

klima-ekintza

Batez besteko tenperatura globala industriaurreko garaiarekiko 2 °C baino gehiago ez igotzea helburu duten politiken multzoa.

klima-justizia

Klima-aldaketaren aurkako borrokan pertsona edo herrialde guztiekiko tratamendua bidezkoa izatea defendatzen duten printzipioen multzoa.

klima-krisi

Klima-aldaketak ingurumenean eta ekonomian inpaktu larria eragiten duenean sortutako egoera.

klima-larrialdi

Mundu mailako klima-krisi larria, klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko neurri zehatzak berehala hartzea eskatzen duena.

klima-neutraltasun

Atmosferara isuritako berotegi-efektuko gasen eta karbono-hustulekuen bitartez xurgatutakoen arteko balantzea zero den egoera.

kontzentrazio-ibilbide adierazgarri; RCP

Klima-aldaketari buruzko Gobernuarteko Taldeak (IPCCk) etorkizuneko klima posibleak deskribatzeko erabilitako berotegi-efektuko gasen kontzentrazioen profil bakoitza.

Kyotoko Protokoloa

Klima-aldaketa gerta ez dadin herrialde industrializatuek atmosferara isurtzen dituzten berotegi-efektuko gasak nola murriztu arautzen duen nazioarteko hitzarmen loteslea. Nazio Batuen Klima Aldaketari buruzko Esparru Hitzarmena Kyoto hirian, Japonian, 1997ko abenduan egindako biltzarraren emaitza izan zen, eta 2005eko otsailaren 16an jarri zen indarrean.

naturan oinarritutako konponbide; NOK

Klima-aldaketaren ikuspegitik gizartearentzat kritikoak diren erronkei aurre egiteko konponbide integratu eta funtzio anitzekoa, naturan inspiratuta dagoena eta natura oinarri duena. Horrelako konponbideak efizienteak dira kostuen ikuspegitik, eta erresilientzia handitzen laguntzen dute, ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren ikuspegitik onuragarriak izateaz gain.

Nazio Batuen Klima Aldaketari buruzko Esparru Hitzarmena; COP; UNFCCC

Nazio Batuen Erakundeko kide diren herrialdeen arteko hitzarmena, atmosferako berotegi-efektuko gasen kontzentrazioak egonkortzea helburu duena. Jarduera antropogenoak klima-sisteman ondorio arriskutsurik ez izatea du xede hitzarmen horrek.

Parisko Akordioa

2015ean 197 herrialdek klima-krisiari aurre egiteko adostutako tratatu loteslea, batez besteko tenperatura globalaren igoera industriaurreko garaiarekin alderatuta 2 °C-tik behera mugatzeko konpromisoa jasotzen duena.

RCP agertoki

Klima-aldaketari buruzko Gobernuarteko Taldeak (IPCCk) berotegi-efektuko gasen isurien eta atmosferako kontzentrazioen XXI. mendeko bilakaera posiblei dagokienez aurreikusitako lau agertokietako bakoitza.



UZEIren lankidetzarekin



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE